



# BARATZERO HITZAK

Odei BARROSO GOMILA



# BARATZEO HITZAK

Odei BARROSO GOMILA

## Ραντχοα Ετσεγοϊν

Euskal kultur Erakundeکو zuzendariaren hitza

Le mot de Ραντχοα Ετσεγοϊν Directeur de l'Institut Culturel Basque

Isiltasunaren baratzean lan egin du Odei Barroso bertsulariak. Donibane Lohizuneko Baratze botanikoan, udazken, negu, udaberri eta udan. Gogoα alhan utzi du Antonio Vivaldiren lau urtarοetan barna. Hura bezala, hitz bakoitzaren musika apaindu du, betegintzarrez, armoniaren eta asmakizunaren arteko zubiak eraikitzeکو xedearekin. Ahozkoetik idatzira iragan da, bapatekoα egundainokotik egundainokora orrialde zurian finkatzeko gisan. Urtaroek dakarte eguzkia, euria, lainoα, haize hegoα, lantzurda, zirimiria eta goroldioaren izerdia. Zuhaitz landareen sortzea edo hosto orbelen metatzea. Hots, biziaren zirurika, oroimenaren geroα eta izar hilen berpiztea. Euskal Kultur Erakundeak, Paul Jovet Baratze botanikoaren adixkideekin partaidetzan, Odei Barroso gomitatu du bidaia eder horren egitera baratzean gaindi, kolore, entzumen, usainen araberako hitzek erakartzen digutelarik emozioα eta bakoitzaren barne gogoeta, biziaren filosofia. Urrunago ere joan da Odei, bere sorkuntza lanetarik gehi, egitasmo honetan bertsu eskoletako gazteak ere bereganatu baititu, baitezpadakoα dugun transmisio lana segurtatuz. Ondorioz, naturalki « Hogeita » deitu labelaren barnean sartu dugu ekitaldi hau, hain zuzen gure programaren helburua baita euskal kulturaren bide berriak urratzea, bereziki gazteei hitza eman ez sorkuntza eta esperimentazioen bitartez. Esker mila Odei. Goza ditzagun zure lorategian, ur xirriparen trantta ttikienak, gure baitako harri biziaren urezatzeko, urtaroen joan-jinean.

L'improvisateur Odei Barroso a travaillé dans le jardin du silence. Dans le Jardin Botanique de Saint-Jean-de-Luz, en automne, en hiver, au printemps et en été. Il a laissé son esprit se nourrir des quatre saisons d'Antonio Vivaldi. Comme lui, il a agrémenté la musique de chaque mot, à la perfection, afin de bâtir des passerelles entre harmonie et invention. Il est passé de l'oral à l'écrit, de manière à fixer à tout jamais l'improvisation sur la page blanche. Les saisons apportent avec elles le soleil, la pluie, le brouillard, le vent du sud, la brume, la bruine et les gouttes de sève sur la mousse des bois. La naissance des pousses d'arbres ou les tas de feuilles mortes. Le tourbillon de la vie, en quelque sorte, l'avenir de la mémoire et la renaissance des étoiles disparues. L'Institut Culturel Basque, en partenariat avec les Amis du Jardin Botanique Paul Jovet, a invité Odei Barroso à entreprendre ce merveilleux voyage au cœur du jardin, tandis que les mots inspirés par les couleurs, les sons et les parfums nous procurent émotion et réflexion personnelle, une certaine philosophie de la vie. Odei est allé bien au-delà car, outre son travail de création, il a su associer à ce projet les jeunes élèves des écoles d'improvisation, assurant ainsi ce travail de transmission si essentiel à notre langue et à notre culture. Par conséquent, c'est tout naturellement que nous avons intégré cette intervention dans le projet « Hogeita », car l'objectif de notre programme consiste précisément à ouvrir de nouvelles voies pour la culture basque, tout particulièrement en donnant la parole aux jeunes par le biais de la création et de nouvelles expérimentations. Merci Odei. Profitons, dans ton jardin, des moindres gouttelettes du ruisseau qui murmure, pour arroser les précieux bijoux de nos cœurs, au fil des saisons.

## Anne-Elizabeth WOLF

Baratzeko Adixkideen Lehendakariaren hitza

Le mot de Anne-Elizabeth WOLF Présidente de l'Association des Amis du Jardin

Ondarearen Europako Egunen 2014ko gaia “Kultura-ondarea, natura-ondarea” zen ; egun horien karietara, Odei Barroso bertsolaria bere ikasleekin etorri zen Donibane Lohizuneko Itsasertzeko Paul Jovet baratze botanikora ; adiskide ugari bildu zitzaizkien inguruan, eta gehien maite zituzten guneetan zehar elgarrekin ibilaldi lasaia egitera gomitatu zituzten. Ibilaldiak poesia, musika eta eskaintza botanikoa uztartzen zituen, eta hartan parte hartu zutenek une paregabekoa bizi ukan zuten. Idazle egonaldi baten bururapena zen, Baratzearen Adiskideen elkarteak abiarazia, Euskal Kultur Erakundearekin eta Donibane Lohizuneko Herriko Etxearekin lankidetzan burutua. Baratzearen Adiskideak izan ziren botinakari famatuaren izena daraman Baratzearen asmatze eta sortzearen abiarazle, zientzia-pedagogiarako leku bat, aurkikuntzara, bere baitan biltzera, amets egitera eta sorkuntzara gomitatzen duena, Odei Barrosok, talentuz eta apaltasunez, erakutsi duen bezala.

Lors des Journées européennes du Patrimoine de 2014 au thème de « Patrimoine culturel, patrimoine naturel », le bertsulari Odei Barroso et ses élèves ont offert aux nombreux amis présents un moment exceptionnel conjuguant poésie, musique et offrande botanique, au fil d'une lente promenade à travers leurs sites préférés du Jardin botanique littoral Paul Jovet à Saint-Jean-de-Luz. Il s'agissait de la conclusion d'une résidence d'écrivain initiée par l'association des Amis du Jardin, en partenariat avec l'Institut culturel basque et la ville de Saint-Jean-de-Luz. Les Amis sont à l'origine de la conception et de la création du Jardin portant le nom du célèbre botaniste, un lieu de pédagogie scientifique qui invite à la découverte, la concentration, la rêverie et la création comme l'a montré Odei Barroso avec talent et humilité.



Leku bera urteko garai ezberdinetan zenbateraino alda daitekeen ikustea, lurtean sustrai-tutako landare bat etengabe mugimenduan dela ohartzea eta guzti horren parte sentitzea gauza ederra da. Guztiok dugu baratze bat gure baitan: lurrari lotzen gaituen zerbait, eta gure lurretik eskaini dezakegun zerbait. Baratzeak oroitarazi dit, ikusten duten begiak bezain garrantzitsuak direla ikuspegiak eta begiradak. Galderarik egin gabe datozen erantzunak eta erantzunik gabeko galderak atzeman ditut bertan, eta horren fruitua da esku artean duzun bilduma hau.

Être témoin des innombrables changements qui s'opèrent dans un même lieu au cours des différentes périodes de l'année, prendre conscience du mouvement perpétuel d'une plante enracinée dans la terre, et se sentir partie intégrante de cet ensemble constitue un véritable émerveillement. Nous avons tous en nous un jardin : quelque chose qui nous relie à la terre, quelque chose à offrir de notre terre. Le jardin m'a rappelé que les perspectives et les regards sont tout aussi importants que les yeux qui regardent. J'y ai trouvé des réponses qui surgissent sans même qu'il y ait de question, et des questions sans réponse. Le recueil que vous avez entre vos mains est le fruit de cette découverte.

**Odei Barroso Gomila**

# Baratzeho hitzak

*Doinua: Kantuz sortu naiz eta*

I -

Zer ote da burura  
hitza dakarrena?  
Zerk darabil mezu bat  
buruan barrena?  
Zer? da galdera bat maiz  
pausa litekeena,  
baina nehork ez dauka  
erantzun zuzena.  
Horregatik dut nahitzat  
berdintzearena  
erran nahi dudana eta  
konprenitzen dena.

II -

Lurra da bizileku  
eta bitarteko  
barrenean duguna  
adierazteko.  
Baratzeak hartu nau,  
egin nau etxeko.  
Zer pazientzia duen  
bizi-irauteko!  
Bere kasa mintzatzen  
ahal balitz, hobeto,  
nik baino gehiago  
luke erraiteko.

III -

Ideiak, olerkiak  
eta bertsu anitzak  
ea nehork dituen  
erakargarritzat.  
Goizero sortzen dira  
eguneko printzak;  
ikusiz magnoliak,  
loreak, haritzak...  
testuok egin ditut  
nola ni bizitzak:  
gure baitan ditugun  
Baratzeko Hitzak.

# Baratze botanikoa

*Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak*

I -

Arxiloako gurutze ondoan  
leku eder magikoa,  
eremu berde zabalekoa,  
aniztasun handikoa.  
Itsasertzeko xendrak josia,  
parean Atlantikoa,  
hau ikusteko modukoa da,  
gozatzeko neurrikoa;  
Donibaneko herriak duen  
baratze botanikoa.

II -

Behin baratzerantz sartu orduko  
pizten zaigu jakinmina:  
Zer motakoa ote da hori?  
Zein zuhaitz horren adina?  
Dena aldatzen doa denbora  
joaten deno aitzina.  
Bertan argiki ikus liteke  
urtaroen eragina,  
hamaika aldiz etorri arren  
ez da bi aldiz berdina.

III -

Hemen arrunta dugu berezi  
eta berezia arrunt.  
Labirintoan galdu nintzen ni;  
galdu nahiko duzu zuk.  
Ezpondetako landareei so  
haizea konprenitu dut.  
Baratzearen sarreran ere  
daude magnoliak batzuk,  
lehen ikusten nituen eta  
orain begiratzen ditut.

IV -

Bere karratu botanikoak,  
itsasertzeko larrea...  
Pergola baten azpitik pasaz  
larrosei gorazarrea.  
Baliagarri den baratzeak  
zer berri dakar gaur, ea?  
Galdera bat dut behin ikusirik  
atzea eta aurrea,  
zertan nahi dugun aberats izan  
lurra delarik urrea?

V -

Itxura aldakor, egun batean  
edo bestean etorri.  
Landareek zer aniztasun, bost  
kontinenteak jatorri.  
Hariztietan murgildu eta  
zenbat adar, zenbat orri...  
Atzo biluzik, gaur berde berde  
eta bihar berriz gorri,  
nik mugimendu estatikoa  
deituko nioke horri.

VI -

Udazkenean ez da entzuten  
lehenagoko kantu hotsik.  
Neguan, berriz, ez da faltako  
egun heze eta hotzik.  
Udaberriak ez du ukatzen  
inoiz une aproposik,  
eguzkiaren beroarekin  
udan argitzen du goizik.  
Ez naiz sekula triste joan eta  
beti itzuli naiz pozik.

# Oparia

Bizitza da gizakiari inoiz egin zaion oparirik politena. Oparia jaso zuenetik egilearen bila dabil, lagun ezkutu hori nor den jakin nahian. Teoria eta uste anitz piztu dira ezjakintasunaren itzalean, arrazoiaren bila galdera irrazionalak pausatzeraino. Nork egin ote zigun ozono geruza batekin enpaketatutako opari hau?

Zilatu dugu paketea, leku anitzetan gainera, zilo horien bidez barnean zer dagoen jakin nahi bagenu bezala. Kuriositateak oparia egunez egun hondatzera garamatza. Opariari begira baino oparitik begira atzeman nahi ditugu erantzunak.

Gaur egun haur bati egunkari paperez estalita eskura emanen bagenio mundua, baloi bat dela pentsatuko luke ireki baino lehen. Zoritxarrez opari hori ez da guk jaso genuenean bezain borobila eta, gainera, horrela zilatuko bagenu ez litzateke haizerik gabeko baloi bat besterik izanen.

Gizakia beti izan da ulertzen ez duenaren beldur, azalpen logikorik ez duten gauzak ez ditu maite. Bere burua, ordea, maite du eta bere buruari bakarrik dio beldurra. Gure kontraesanak ulertuz, beraz: beldurra maitasunaren parte da.

Opari bat jasotzen dugun aldiro, norbaitek egina izan behar dela erakutsi ziguten. Horregatik maite ditugu opariak, eta horregatik irekitzen ditugu barnean aurkituko dugunaren beldurrez. Guri inork ez digu oparirik egin, opariak egin gaitu gu. Eta, oraindik, ez dizkiogu inori eskerrak eman.



# Itsasoa

*Doinua: Harrotasunik bada*

I -

Itsasoa zeru eta  
lurraren alaba,  
arrainen ohe eta  
hondartzen izara.  
Bare dagoenean  
nolako zirrara;  
harrotzen baldin bada  
sortzen du ikara.  
Gure begirada  
luzatuz bertara  
ezberdin ikusiko  
dugu beharbada  
baina polita bezain  
arriskutsua da.

II -

Murgilduko bagina  
uretan barrena,  
jakinen genuke nor  
heldu zen aurrena.  
Munduari begira  
lurra da laurdena  
eta jakina da ura  
dela beste dena.  
Nolako dilema  
itsasoarena!  
Ez al da denok jakin  
behar genukeena?  
Ez duela itzultzen  
irensten duena.

III -

Berekin bizitako  
gauzen eraginez  
anitzek begiratzen  
du penaz ta minez.  
Bere kolore xuri,  
gris eta urdinez  
arroken kontra jota  
hotsaren uhinez,  
egia jakinez,  
nahiz askok jakin ez,  
itsasora begira  
sinesten dut, zinez,  
bera mintzo zaigula  
olatuen bidez.

# Pazientzia

Koloreak, loreak, zuhaitzak, itsasoa... Baratzeak begiak laztandu dizkit. Haizeak azala goxatu dit. Euriak bere tantak lerrarazi ditu nere berokian, ura errekan bezala. Benetan bizirik nagoela sentitzen dut horrelakoetan.

Gaur, itsasoko olatuek eta erreka ttiki baten melodiak iratzarri dute ispirazioa. Aspaldian nabil ispirazioarekin hitzordu bat hartu nahian, baina berak ez du ordutegi finkorik lanerako, iristeko nola partitzeko.

Baratzea den kuadroak nahi adina kolore ditu bere paletan, gehitzeko, kentzeko, nahasteko... Koloreak libre dira, markorik gabeko kuadroan. Natura dugun artelanari ez diote barrotezko markorik ezarri. Artea beti izan da askea, natura beti izan da askatasun eremu.

Itsasoaren hotsa eta erreka ura erritmoa markatzen hasi dira, haizea txistuka dabil eta xorien kantak doinua eskaini die. Gizakiak inoiz sortuko duena baino musika anitzagoa eskaintzen digu goizero. Isiltasunean bakarrik entzun daitekeen musika da hori.

Gaur, berantean iritsi naiz baratzerara, baina hor ziren denak nere zai, etorriko nintzela balekete bezala. Betidanik inbidiaz miretsi izan dut baratzea, bere dohairik handiena pazientzia delako.

# Lurra

Lurra idorra da.  
Eskuetan hartu, purruskatu eta hatzen artetik ihes egiten digu;  
gizakiaren atzaparrak ez dira haren babesleku.  
Denok sentitzen gara libre gure etxean...  
eta lurraren etxea hori da: lurra.  
Zeruak negar egin zuen momentutik busti zen lurra.  
Nehork ez zuen uste negarrak bizitza eman zezakeenik.

Lurra emankorra da.  
Jasotzen duena baino gehiago eman izan digu beti.  
Lurrari bizitza dario,  
behetik gora.  
Guk zapaltzeko ohitura dugu,  
goitik behera.  
Zuhaitza, lorea, belarra...  
lurpean sustraitzen dira  
lur azalean bizitzeko.

Gizakia libre sentitzen da leku batetik bestera mugitzen ahal denean.  
Naturaren atalak lekuz mugitzen direnean,  
gehiegi mugitzen direnean,  
inbaditzaile deitzen ditugu.  
Naturaren atalak lekuz mugitu ezin direnean ere,  
libre dira.

Zer da lurra?  
Galdera okerretik erantzun zuzenaren xerka...  
Zerbait eta norbait izenordainak bereizteko joera dugunetik,  
akats anitz egin ditugu gure erranetan.  
Lurra zerbait omen da.  
Nik uste dut bizitza duen orok nor izateko eskubidea duela.

# Neguan

Neguan bizi dira behartsuak.  
Egunen eta gauen hotzaren hotzez berotasunaren bilatzaile sutsuak dira. Baina bilatzen diharduenak badauki ez duela bortxaz beti aurkitzen. Gauzak nahi dituztenak dira ahaltzuak. Behartsuak ordea, gauzak nahi izan baino lehen behar dituztenak dira. Nahi eta ezina gaindi daiteke; behar eta ezinak pertsona gainditzen du.

Neguan bizi dira eskaleak.  
Epela eskatu eta hotza jasotzen dutenak dira, usu, eskaleak. Txanponen faltan izotz zatiek egiten dute «klin-klin» hotsa eskerako darabiltzatzen katilueta. Goxotasun eskasian, penak urtuko dituen izotzak.

Neguan bizi dira umezurtzak.  
Gurasoen gerizperik ezean umezurtz-etxeetan ezarri genituen, sasoiz kanpoko loreak negutegietan ezartzen ditugun bezala. Poza, ordea, nekez loratzen da maitasunik gabeko lurrean.

Neguan bizi da umorea.  
Triste dago, izoztuta. Pertsonen hoztasunak dardarka utzi du umorea. Lehen haurren artean berpizten zen. Baina negua da eta eskoletako ikasgeletan dago orain, irakaslearen mahaitik metro erdira, bere kadiran zigortuta.

Neguan bizi da zoriona.  
Gabon garaian elurra ari du. Olentzero edo Aita Noel delakoaren irrifarraren gibelean gordetzen da zoriona. Badakigu Olentzero edo Aita Noel ez dela existitzen, gurasoak direla. Gurasorik ez duten askorentzat zoriona ere ez da existitzen. Azken aldian opari-paper artean etxeetara iristen ahalegindu da zoriona. Baina krisi garaian hori ere nekez.



Neguan bizi da sistema.

Gehiengoari euria eta gutxi batzueri eguzkia eskaintzen dien hori. Oraindik ez du ulertu, batetik bezain bestetik, bietatik behar duela bizi-iraupenaren zikloak, gehiengorik ez baita gutxiengorik ezean, eguzkia kalte baita euririk ez bada.

Negua iritsi da.

Ez du nehoren beharrik etortzeko eta joateko, maiz, bultza egin behar zaio. Hotza pasatu duenak badaki zer den negua. Elurraren gainean jolasean aritzeko aukera duenak ez daki zer gogorra den izotza. Zorionekoak gu, nahi dugularik negua tximiniak berotutako gelako leihoaren beste aldetik ikus dezakegunak.



# Zerua

*Doinua: Lagundurikan danoi*

I -

Sortzen denak berezko  
omen du patua,  
zeruarentzat sortu  
nahi nuke kantua.  
Batzuek maite bestek  
madarikatua,  
baina betirako hor  
da zeru altua,  
bizitzaren etxeak  
duen teilatua.

II -

Hamaika koloreko  
azal inkoloro  
batez mintzatu dira  
mila teologo.  
Argi dago bihurtzen  
gaituzula zoro,  
zuri esker ikasi  
baitugu haboro:  
ezin dela ukitu  
ikusten den oro.

III -

Gizakia ohartu  
dadila bederen,  
urdin, xuri, arrosa,  
gris, beltz edo garden,  
zeinen lekuko fidel  
eta ixila den,  
ez baitu ezer erran  
ikusitako arren,  
denbora honetan zer  
bilakatu garen.



IV -

Fededunen sostengu,  
apezen aldare,  
ameslarien zilo,  
etsituen sare,  
hil ondoko bizitza  
berriaren jabe,  
baina paradisia  
zukan egonda' re  
ezin al da dastatu  
hara heldu gabe?

V -

Nola izan zaitezke  
emankor ta antzu?  
aldi berean horren  
eder ta indartsu?  
Zer ekartzen diguzu  
ta zer daramazu?  
Zukan nere maiterik  
ba ote daukazu?  
Erantzunik gabeko  
galdera zara zu.

VI -

Egun afirmazio  
dugu kutsadura  
ez dugulako zaintzen  
emandako hura.  
Zeruaren argia  
laino bihurtu da.  
Zergatik ote dugu  
behin jinik mundura  
arnasari birrikak  
kentzeko ohitura?

VII -

Emazterik gabe ez  
litaikete gizonik,  
beraz sekula santan  
ez dut usteko nik  
zerutxorik ez duen  
lurrik badagonik.  
Ulertzeak ekartzen  
ahalko digu onik  
zer zori dugun bien  
artean egonik.

VIII -

Ez dakit egin ote  
gintuzten horrela...  
zaindu nahi dugu gure  
aintzina, gibela.  
Argi da orain heldu  
dena heldu dela  
denen gainetik egon  
nahiko genukeela  
ahazteraino gure  
gainetik zaudela.

IX -

Izarren pausaleku,  
pausarako izar,  
goizetan beti berri,  
gauetan beti zahar,  
haizearen hego ta  
desioen ipar.  
Zure pean bizitza  
piztu dadin bihar,  
pozik nahi zaitut baina  
egin zazu nigar.

# Donibane Lohizuneri

*Doinua: Mendan gora haritza*

I -

Hitzetara ekarria,  
errimatuz ezarria,  
Donibaneri buruzko nere  
lehenengo harria.  
Erdigune zahar-berria,  
hondartza zoragarria...  
Nork ez du pozik bisitatuko  
halako herria.

II -

Pozak dituzu gorpuztu,  
besteren penak biluztu,  
negu guzia aieririk gabe  
eta udan puztu.  
Badut zenbait aurre-juzku:  
ez liteke izan justu  
zenbat sakela bete duzun ta  
zenbat etxe hustu.

III -

Eguzkiak argitzeko  
nahia duen bakoitzeko,  
kontzientzia zuritu eta  
azala belzteko.  
Nahiz hondartza egon lepo  
izanen zira etxeko  
hondar alerik gelditzen bada  
oihala jartzeko.

IV -

Zure izen, zure jende,  
bizi eta bizi lege,  
aldatuz doaz urterik urte  
ta menderik mende.  
Zuri, gorri eta berde,  
ikurrinak alde alde...  
baina kolore gutxi dakusat  
euskararik gabe.

V -

Euskarari ahal dutela  
lekua kenduz horrela  
eta erranen dute gu bezain  
euskaldun direla.  
Ahantzi, baztertu bestela...  
nik uste dut hori dela  
hizkuntza bati piztea bere  
herio-kandela.

VI -

Ganbeta, eliza, plaza,  
eraikin, portu, terraza...  
Edertasuna begi onekin  
ikustean datza.  
Santa Barbara, hondartza,  
neguan lo, udan altxa...  
Nork ez du pozik emanen bertan  
bere azken hatsa?

# Baratzea udazkenean

*Doinua: Kaixo Xiberua ta*

I -

Natura dugu gure  
bizitzaren sari,  
bera beti aldatzen  
eta sortzen ari.  
Bertso hauek idatzi  
nahiz udazken kari  
xoriak ere hasi  
zaizkio kantari  
Lohizuneko baratze  
botanikoari.

II -

Anitz da hosto batek  
erraiten duena,  
orbel bihurtu eta  
lurrera joan dena.  
Biharko zuhaitzaren  
ongarri zuzena;  
baina azkenean ez  
al da udazkena  
zerbaiten bukaera  
eta hastapena?

III -

Udazkenean dena  
ez da basamortu.  
Zuhaitza lurtean zen  
harrotu, errotu,  
adarrak biluztu ta  
azala idortu.  
Zaharrak kentzea ezin  
baldin badu lortu  
hosto berrikin ezin  
izanen du sortu.

IV -

Lurtean sustraitua  
ez liteke mugi,  
zeruak bizitzaren  
ura du isuri.  
Aldatu dira paisai,  
inguru, irudi...  
uda bukatu eta  
negurako zubi,  
geldirik ez dagoen  
pausa bat dirudi.

V -

Naturak sekula ez  
du hartzen atsedean,  
guk baino hobeki daki  
zergatik hola den.  
Berrito piztuko da  
itzali zena lehen,  
baina ez dakit inoiz  
ohartuko garen  
udazkenean zenbat  
udaberri dauden.

VI -

Onartuko al dugu,  
guzien antzean,  
mundu hunetan denak  
gaudela etxean  
uda idorrean zein  
udazken hezean;  
uste denak galduko  
zaizkigu haizean  
naturaren zikloa  
ulertu ezean.

# Haritza

*Doinua: Haize hegoa*

- |   |   |
|---|---|
| I - Baloratuko bagenu<br>ikus dezakeguna<br>begiradak ekarriko<br>luke goxotasuna.<br>Naturaren fruitua da<br>naturaren laguna.<br>Adar lodi nola mehar,<br>hosto ugariduna,<br>zura gogorra, sendoa,<br>azal marroi iluna,<br>fruitu arina, ttikia,<br>eta enbor astuna.<br>Ikusi duenak daki<br>zer den edertasuna.                       | II - Xerriak ezagutzen du<br>ezkurren zaporea,<br>xoriak badaki nola<br>egin bertan ohea.<br>Apirilean agertzen<br>zaio lehen lorea,<br>enborrean idatzia<br>du bizi-tenorea,<br>urtaroak aldatzen du<br>hostoen kolorea.<br>Ikusten ahal duguna<br>ederra da, ordea,<br>beste hainbeste darama<br>sustraietan gordea.          |
| III - Gora eta behera dabil<br>makina bat intsektu,<br>gizakien berogailu,<br>xorien pausaleku.<br>Bere baitan gordetzen du<br>guk adina sekretu.<br>Ezarri dugu Gernikan<br>bihurtuz monumentu,<br>moztu izan dugu bitan,<br>hautsi eta xehezu,<br>kaltegarri ez den arren<br>usu dugu kaltetu<br>eta baimenik sekula<br>ez diogu galdetu. | IV - Handitzen da, sendotzen da<br>urtaroak urtaro,<br>ez da ahultzen nahiz eta<br>urte anitz igaro.<br>Lur azidoan, hezean,<br>haziko da oparo,<br>hostoekin jantziko du<br>biluztua lehenago.<br>Abereen euritako,<br>abereen abaro,<br>gurekin konparatuta<br>aurreratuta dago<br>guttiago behar baitu<br>bizitzeko gehiago. |

# Lore eta Orbel

Udazkena ate joka iritsi zen Lore eta Orbel, laurogeita hamarna urteko bi amatxi zaharren ospitaleko gelara. Hiru udaberri igaro ziren heriotzaren itxarongelan lehen aldiz elkar ikusi zutenetik, zuhaitz berberaren bi adaxka bilakatu zirenetik. Bizitzaren mailuak gela bereko ohe banatan iltzatuak zituen, ate berririk ideki eta begiak itxi ezinik. Lore eta Orbelek zai zuten etorkizun beltzak kolorerik gabeko orainaldi bilakatu zuen beraien iraupen bizitza; biziraupena alegia. Makina banak atxikitzen zituen bizirik.

Gela berean egonagatik, Loreri kanpora begira zegoen leihoaren ondoko ohea egokitu zitzaion. Orbelek, ordea, atearen ondoko ohea zuen bizileku. Egunak hizketan igarotzen zituzten; Lorek leihotik ikusten zuenaren berri ematen zion, eta Orbelek irudikatu egiten zuen. Orbelen begiek inbidia pixka bat zioten Loreri, baina, ordura arte bederen, irudikatze hutsarekin asetzen zuen Orbelek bere begiz kanpokoa ikusteko zuen grina.

Udazkeneko egun hotz hartan ere, beste egun guzietan bezala, Lore leihotik ikusten zuenaren berri ematen hasi zitzaion Orbeli:  
-Berde berde dago gaur zelaia; haizeak, berriz ere, dauden loreak dantzan ezarri ditu. Horiek beti alai daude, beti koloretsu, beti bizirik. Hara, eta han, urrunean, margaritak ikusten ditut: gustuko genuen gizonak maite gintuen ala ez gintuen maite galdetzen genien margarita horiek berak. Petalo guziak dituzte oraindik; pentsa zenbat maitasun dagoen oraindik deskubritzeko. Eta, urrunago, han daude larrosa zuri eta gorriak, zure bilobak joan den astean ekarri zizkizunak bezalakoak. Ikusten dituzu? Irudikatzen dituzu?

Begiak zabal-zabalik zituela, baietz erantzun zion Orbelek, eguneko lehen irribarrea eskaintzarekin batera. Eguzkia gordetzen hasi zen, gaua iritsi eta begiak itxi zituzten biek. Ohartzera, bizirik atxikitzen zituzten bi makinak bakarrik zeuden esna.

Egunak joan, egunak etorri, udaberria iritsi zen berriz ere. Lore eta Orbelen ospitaleko gelan ez zen sasoirik ageri ordea; denak berdinak ziren. Egunero bezala, Orbelek Loreri galdegin zion leiho-tik ikusten zuena kontatzeko, eta, egunero bezala, hasi zen Lore:

- Gaur ere zelaia berde-berde dago, zoragarria da. Atzeko aldean dagoen parkean haurrak jolasean ari dira, bizitzaz gozatzen. Horien ondoan, jarleku bat dago, lehen muxuak trukatzan ari diren bi lagun daude bertan. Ilusioa eta maitasuna. Zer gehiago behar dugu bizitzeko?

- Guk, kabledun makina bat!,erantzun zion Orbelek kopetilun. Hilabeteak zeramatzan Orbelek buru-makur eta inbidiaz. Berak ere leihoaren ondoko ohean egon nahi zuen Lorek ikusten zuena ikusi ahal izateko.

Gau hartan, Lore lo zegoen bitartean, Orbelek bere ohetik eskua luzatu eta Lore bizirik mantentzen zuen makina deskonektatu zuen. Hortik segundu gutxira hil zen Lore. Erizainak ziztu bizian iritsi ziren, baina ez zuten ezer egiterik izan. Loreren gorpua hartu eta ospitaleko gela hartatik atera zuten.

Biharamunean, erizainek Orbel lekuz mugitu zuten, eta berak hainbeste desio zuen leihoaren ondoko ohean ezarri zuten. Leihotik begiratu zuen, baina han ez zegoen ezer, ez zelairik, ez margaritarik, ez larrosarik, ez parkerik, ez umerik jolasten... Ospitaleko leiho hartatik begiratu, mundrunezko parking erraldoi bat besterik ez zen ikusten.



## Zoriona

Ondoriorik onenak  
esperientzia txarrenetatik  
ateratzen dira.

Zoriona ez da eskuz ukitzen den zerbait, ez da eskuen artean ibiltzen ahal, baina guztiok eskura dezakegu eta guztion esku dago: eskubide bat da. Neurri handi batean, zoriontsu izatea erabaki bat da, baldin eta inork erabakitzeke eskubidea ukatzen ez badizu.

Mila aldiz madarika dezakegu bizitza, gaixorik, ohetik mugitu ezinik pasatu dugun egun bakoitzeko. Ordea, beste hainbeste aldiz eman beharko genizkioke eskerrak bizitzari sano pasatu ditugun egunetan eman dugun urrats bakoitzarengatik. Zoriontasuna gauzak begiratzeko moduan datza: gertakizunekiko dugun ikuspegian eta jarreran.

Sufritzen pasatutako egunei esker konturatzen gara sufritzen pasatu gabeko egunetan zer zoriontsu ginen. Preso egon denak inork baino hobeki daki askatasunak zer zorion dakarren. Ikuspegiz aldatzea ez da erraza izaten. Alde txarrera, zorigaitzaren aldera igaro denak ikuspegi ona hartzen du askotan. Esperientzia txarrenetatik ikasten da gehien. Zorionaren dilema.

Ematen duguna  
jasotzen dugu.

Zoriontasunaren oinarria maitasuna dela diote askok. Beste askok erranen dute maitasunak zoritxarra besterik ez diela ekarri. Azken hauen kasuan, argi dago zoritxarra ez diela maitasunak ekarri, maitasun ezak baizik.

Besteen minetik norberaren poza sortzea beti izan da arriskutsua bezain tristea, eta horrengatik daude gerrak odolez adina malkoz bustiak. Odolez eta malkoz busti den lurrean nekez haziko da zoritxarra ez den beste ezer, hein batean, zoriontasuna besteak zoriontsu egitea delako eta ondokoa negarrez ari bada nik irri egitea arriskutsua delako, tristea. Berez, ezinezkoa behar luke izan.

Zaflako bat ematen duenak ez du ferekarik jasoko trukean. Hori denek badakigu. Hori horrela, ez dakit zergatik egiten zaigun hain zaila ulertzea, maite duena soilik izanen dela maitatua, ematen duguna jasotzen dugula ulertzea, alegia.

XXI. Mendean, oraindik atzerakoi,  
bidea egin gabe ukitu nahi dugu gailurra.  
Aitzina joateko arrazoi  
bakarra da atzean gelditzeko beldurra.

Gailurrak ulertzeko modu anitz daude, baita bideak egiteko ere. Beldurrak jende anitz harri bilakatzen du, ausardiak beste jende anitz harritzen duen bezala. Ez dago gailurrean harri bilakatzea, nahi genuena lortu eta bere horretan betirako geldirik geratzea baino erabaki okerragorik. Ez dago guztia dakiela uste duena baino ignoranteagorik.

Garaipen bat helburutzat hartu eta lortzea gauza pozgarria da, baina luzera begira ez du balio, ez du iraupenik. Tontor batera iristeak gailurra oraindik urrun dagoela erakutsiko digu. Horregatik, gai bati buruz gehien ikasten eta sakontzen dugunean ohartzen gara zenbat geratzen zaigun ikasteko oraindik. Hori umiltasunez onartzean datza gakoa, poza, zoriona. Nihaurk, nahiago dut gailurrak bidetzat hartzea eta bidea egitea bera gailur gisa ikustea.

Zoriontasuna duguna baloratzea da.

Duela hilabete bat, lagun batek, azken urte osoan zehar helburutzat zuen merkatuko mugikorrik berriena erosi zuen. Bere izerdiz lortutako diruarekin erosi zuen mugikor hori, eta a zer poza sentitu zuena. Hilabete beranduago, gaur, lagun horrekin egon naiz eta mugikor berri eta modernoa zen hura nik neure mugikor zaharkitua bezainbat baloratzen duela ikusi dut. Bere mugikor berria bere begientzat, eta nere mugikor zaharkitua neure begientzat, berdinak dira orain, berdin baloratzen ditugu.

Edozein gauza materialek sortzen duen plazerrak epe geroz eta laburragoa du: iraungitze-data duen plazerra da. Materiak erosotasuna edo ongizatea ere ekar lezake, baina ez zoriona. Azken batean zoriona ez baita ez dugun hori lortzea, duguna baloratzea baizik.

Sistemak dirua baloratzen erakutsi digu, gauzak ukatearen pozez baino gauzak galtzearen beldurrez bizitzen. Horregatik, agian, kutsatzeari utziko diogu aire garbia ukateko ordaindu beharko denean, aukera bakar bat gelditzen delako erabakirik hartu beharrik izanen ez denenean, gailurra zegoen lekuan amildegi bat ikusiko dugunean, jasotzeko esperantzarik gabe emanen dugunean... Nik, anartean, nahiago dut bidean gurutzatzen ditudanen ikuspegiekin harritzen segitu. Zoriontasunaren gailurra urrun dago, baina bideak berak zoriontsu egin gaitzake.

# Ametsen lurrean

Gaur denak berdinak dira eta denak ezberdin.

Gaur nehork ez du egin

gerla bakearekin.

Ez iskilu, ez istilu,

urrea ez da aberastasunaren ispilu.

Agintzen du izanak eta ez izenak,

gehiengorik ez dago onak baitira gehienak.

Zirenak eta izanen direnak,

bidean gurutzatzen dira doazenak eta datozenak.

Bagoaz eta bagatoz errairik gabeko trenean,

autorik ez da eta bizitzak doaz gurgipen gainean.

Gizakiak ikasi du, hala ere,

lurra zapaltzen zapaltzaile izan gabe.

Zelai zabaletik

sortutako aletik

jaten da eta ikusten da argia itzaletik.

Jokoari ostiko jolasen magaletik,

kirolak maite dira baina ez irabazteagatik.

Haatik,

badakizu, eta badakit

lurra azpian egonagatik

gu ez gaudela gainetik.

Denak bizi dira jori,

denek diote: tori!

Eskua luzatzen dizute ez zaitezen erori.

Ez da nehor hiltzen, ez da nehor bizi,

han denak daude eta berdin dio nor heldu zen lehenbizi.

Gauzak eskatzen dira, baina agindu ez.  
Denak lana eskatzen du, baina deus ez da lortzen nekez.  
Kaleak ez du ikusten umerik gosez  
eta eritasunak sendatzen dira besarkada batez.  
Gure ametsen lur idor  
hori emankor  
bihurtu da eta ona baizik ez liteke sor.  
Hor,  
nehor  
ez da ezer eta denak dira nor.



# Genetikoki eraldatutako organismoak

*Doinua: Konfesatuta hau esateko*

I -

Ni baino baino askoz jakintsuago den batek errana neri : naturak egin digun bidea behar genukeela segi, eta hitz anitz eman zaienez hitzeko ez direneri, hitzok zuzendu nahi nizkieke nahiz eta ez jakin gehiegi: Genetikoki eraldatuak diren bihotz horieri.

IV -

Gaur egunean nor ez ote da joan supermerkatua sabela bete nahian hustu gabe sakeleko hura. Aurrez eginak diren jakiak, botiletan preso ura... Bizi baikara ez dakigula zer sartzen dugun barrura pentsatzeraino lurrak emana ez dela elikadura.

II -

Aitortuko dut azken aldian sentitzen dudala pena entzun ondotik telebistak zein irratiek diotena. Batzuentzako urre berriak transgeniko du izena, ezin nezake uler natura eraldatu nahiarena gehiago ezin baita hobetu berez perfektua dena.

V -

Ai gizakiak duen interes pertsonal madarikatu horri begira kolektiboa ezin da belaunikatu. Landare antzu bat sortzen duen kimika lurpean sartu, sosa atera nahi duten hoiek beharko dira ohartu naturak duen zikloa ezin dutela pribatizatu.

III -

Laborantzaren garapenean bukaeraren segida, aukeratzeko tarterik uzten ez duen alternatiba. Hazia hartu, lurpera sartu eta haziko da di-da. Ikusi diren artabururik politenak irten dira eta artean herri guzia «artaburuei» begira!

VI -

Genetikoki eraldatua, ederra bezain handia, zientifikoak esplikatu du ez dela miraria, soilik prezio altuan egin behar dela eskaria. Transgenikoak ikusten badu lur azalean argia, behin betirako lurraren pera joanen da laboraria.

# Sinesten dut

Sinesten dut  
momentuan, unean,  
iraganean, etorkizunean,  
harrotasun xumean,  
jainkorik gabeko fededunean,  
urrerik gabeko aberastasunean.

Sinesten dut  
edozer gauza litekeela lortu,  
maitatzea ezin dela zigortu,  
handi nahia hondar ale bat dela,  
handikeria basamortu,  
malkoak idortu  
daitezkeela  
eta mundura ez zela  
nehor gaizto sortu.

Sinesten dut  
denborak zidortu  
dituen bideetan,  
historiak zigortu  
dituen iritzietan,  
urratsetan,  
ez helmugan,  
bi pertsonen harizko abenturan,  
loturan,  
ez kateetan,  
ateetan,  
ez itxituran  
izaite libreetan,  
ez itxuran,  
naturan, ortzimugan  
eta hildakoak bizi direla gugan.

# Bizitako denbora

*(ipuin errimatua)*

Bazen behin  
emazte gazte bat zein  
aske bizi zen nonbait.  
Bere buruaren jabe, ez kate, ez sare,  
aurkitzeko asmorik gabe  
bilatzen zuen norbait.  
Denen onerako,  
nornahi entzuten zuelako  
entzuten zuen nornahik.  
Poza zuen ekipaiak  
eta bere bizi nahiak  
erakasten zien zerbait.

Ibilera mantsoan,  
gaur hemen, atzo han,  
jakintza babes eta umiltasuna altzoan,  
bere barne mintzoan  
arreta ezarriz  
onartu zuen irriz  
behar zuela joan.  
Sartu zen basoan,  
paisaia lausoan,  
pausoan indarrak  
eta izarrak  
soan.  
Zuzen, biratu,  
adarrak tiratu...  
senak gidatu  
zuen gau osoan.

Hurrengo goizean berean,  
esnatu egin zen hondartza barean.  
Egunero sortzen gara idatzi zuen arean  
ezabatuko ez zena hurrengo marean.  
Berriz sentitu zuen bezperako barne dei bera,  
ustekabean  
segitu behar zuen aurrera.  
Hondartza alde batera  
utzi eta kolpera  
topatu zen pareta erraldoi baten parean.

Bizitzaren erregela  
saiatzea dela  
argi dago bazekiela:  
hogei metroko traba bat zegoen lekuan  
berak ikusi zuen aukera itzela.  
Zango bi, esku bi hotz,  
buru eta bihotz  
eskalatzen hasi zen horrela.  
Nahiz eta ez egin hegan  
lortu zuen bere eran  
inork ez baitzion erran  
ezinezkoa zela.

Pareta pasatu eta aldapa jautsiz,  
etxe bitxiz egina zen herri batera iritsiz,  
hasi zen gerturatzen  
eta sarreran hilerri ttiki bat bazen.



Haizea hasi zen ufatzen  
mugimendua bazen alde guzietan  
baina berak ibili nahi zuen bertan.  
Pasatu zuen sarrerako ateka  
eta tarteka  
begirada pausatzen zuen hilarrietan.

Lehen hilarrian jartzen zuen: Mikel, 8 urte.  
Pentsatu zuen: Batzuek zorte txarra dute!  
Bigarrenean: Ane, 4 urte, 2 hilabete.  
Pentsatu zuen: Bizitzea ez dago merke!  
Hirugarrenean: Jon, 2 urte, 5 egun.  
Pentsatu zuen: Herio zer krudela dugun!  
Ikusirik zer zuen bere begien bistan  
uste zuen maldizio bat bazela herrixkan.

Hilerriko xoko batean  
agure bat zegoen,  
liburuxka bat zuen esku artean  
eta deus galdetu baino lehen  
erantzun zion:  
*Zu lasai neska,  
ez zaitez kezka,  
maldiziorik ez da.*

*Hemen  
denek jasotzen  
dugu liburuxka bat hamar urteak bete ondoren,  
bertan idazten dugu noiz eta zergatik zoriontsu izan garen  
eta zoriontasunak iraun duen denbora zein izan den.  
Izan liteke bidaiari urruna,  
izan liteke zerbaite iraun duen maitasuna,  
izan liteke lagunekin pasatutako eguna...  
zuhaurek gozatu eta gozarazi duzuna.  
Horrela hil eta gerora  
denok dakigu pertsona bat noiz egon den gustora.  
Bere hilarrian zoriontasun uneen batura idatziko da,  
hori baita benetan bizitako denbora.*

Orduan neska konturatu zen,  
hain zuzen,  
nehor ez dela nornahi  
eta zoriona ondotik pasatzen dela  
egonez gero zai.  
Lehenago agureak erran zion gisan,  
ezin zen bizi bere patruaren gerizan,  
hil ez zen nehor ez baitzen egona bizitzan  
eta ainitz hil baitziren nahiz eta ez bizi izan.

Ordura arte bilatzea zen bere helburua  
eta azkenean atzeman zuen bere burua.  
Herrixka ezagutu  
eta ez zen damutu.  
Bere azken nahiak bertan nahi zituen burutu  
segundu bakoitza gozamen bihurtuz.  
Denborarekin azala  
zimurtu  
zitzaion, ez berehala,  
baina besteek bezala  
berak ere nahi zuen bizitza agurtu.  
Bere hilarrian irakurri daiteke:  
20 urte, 2 hilabete.

**Lehenago  
guttik igaro  
duten pareta horren beste aldean  
hilarri bat dago.  
Hilarri horretan jartzen du:  
Zu  
eta zu, zu zara,  
ez beste nehor.  
Zuk erabaki,  
zer zenbaki  
idatzi nahi duzun hor.**

# Izar bat pausatu da

*(Amari)*

Urte hartako neguan  
gauak ez ziren bukatzen  
izar bat pausatu baitzen  
famiariaren zeruan.

Guzia zen behe laino,  
egun oroitzen dihardut,  
hotza pasatu izan dut  
baina ez hainbestearaino.

Aldaketa denez ardatz  
bizitzaren abenturan,  
lehen bidelagun zintudan  
eta orain iparrorratz.

Nere itxaropenean  
itsutzera heldu gabe  
oraindik barnean zaude  
gu erraten dudanean.

Penak hartzen banau estu,  
minak hartzen badit gaina,  
ametsak joan ziren baina  
zurekin nahi dut amestu.

Egon ez zaitezen gertu  
bizitzak zer egin zuen  
aspaldi onartu nuen  
baina ezin dut ulertu.

Oraindik naizen umeak  
zer egin bizitzan zehar  
bakarrik osatu behar  
banau zure hutsuneak.

Askotan dudatan nago,  
aitortuko dut, serio,  
bizitza ala herio,  
zein den arriskutsuago.

Hasi al naizen zoratzen  
nahiz askori dudak utzi,  
heriotzak erakutsi  
dit bizitza baloratzen.

Datorrena datorrela  
orain badakigu, jakin,  
zu ez zaudela gurekin  
baina zu gudan zaudela.

Ez dudanean indarrik  
daukat ulertu beharra,  
ni ez naizela bakarria  
eta ez naizela bakarrik.

Guziak aldatzen darrai,  
ikasi dut, azkenean,  
bizitza zauri denean  
denbora dela sendagai.

Nola orain badakidan  
ezer ez dela bukatzen,  
nere parte bat zurekin joan zen  
eta zure parte bat dago nigan.

# Milesker

Bidelagun izan zaituztedanei, hitz hauei loratzen laguntzeagatik.

Odei

**Argitalpen data: 2014ko abendua**

Testuak: Odei Barroso Gomila – Itzulpenak: Pruden Sudupe, Kattalin Totorika

Ilustrazioak: Supply Studio, Pruden Suduperen argazkietan oinarriturik ©

Maketazioa: PePeteProd – Iruñean inprimatua: Gráficas Ulzama



KULTURA BASKA  
Hikuntza Publikoakiko Sailburuordetza  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística





BARATZEKO HITZAK  
Oder BARROSO GOMILA



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA  
INSTITUT CULTUREL BASQUE



Partaideak / Partenaires :

